

Txinarekin negoziatzeko gakoak

2014/11/17

Jardunaldian, Mondragon Unibertsitateko Profesionalentzako prestakuntzak antolatuta, Txinari buruzko ikuspegi argia, egiazkoa eta praktikoa eman, hango enpresa eta pertsonekin negoziatzeko gakoak aurkeztu eta herrialde hartan ezarritako enpresa eta zerbitzuen esperientziak ezagutarazi ziren.

Txinarekin harremanak izan nahi dituzten ekintzaile, zuzendari eta ETE-etako profesionalei zuzenduta zegoen jardunaldi hau, baita Asiako herrialde hartako internazionalizazio-esperientziak ezagutu nahi dituzten arduradunei ere.

Jardunaldiko hizlari nagusia Julia Pérez-Cerezo izan zen, Europako Batzordeko eta familia-enpresetako aholkulari independentea eta GV21 kontsultoretza-etxeko zuzendaria. GV21 Espainiako, Portugalgo eta Latinoamerikako enpresei zerbitzu profesionalak ematen espezializatuta dago eta bulegoak ditu Madrilan eta Pekinen. Horrez gain, Pérez-Cerezok zenbait liburu idatzi ditu, hala nola "Emprendedoras chinas". Liburu horretan dioenez, txinatar emakumezko ekintzaileek txinatarren hiru ezaugarririk baliotsuenak dituzte: adimena, prestasuna eta jarraitutasuna.

Gaur egun Pérez-Cerezo IESEko Emakume Zuzendarien Foroko kidea, ESIC eta EOI ikastetxeetako irakasle elkartua eta nazioko eta nazioarteko hainbat forotako hizlari aktiboa da. Emakumeen elkarte eta talde ugariarekin lan egiten du, besteak beste honako hauekin: All China Women's Federation, Chinese Association of Women Entrepreneur eta Foro de Ingenieras Españolas.

